

HERNANIK kronika

2003 urtea
Abenduak 18
Osteguna
Alea: 967
www.kronika.net

Bertso Lata atzo hasi zen bertso antzerkiarekin eta datorren astean dira gainerako ekitaldiak

- Igor Elortza eta Iñigo Eizagirre aritu ziren bertsotan eta Trikuharri taldeak egin zituen antzerki esketxak
- Hilaren 22an bertso jarri emanaldia dago, 26an bertso afaria, 27an jaialdia eta 28an kale antzerkia.

GAZTEENTZAKO bertso antzerkiak eman zion atzo hasiera 8garren Bertso Latari, Sandiusterrin. Astigarraga, Goizueta, Martutene eta Oiarzuneko umeak izan ziren Hernanikoekin batean eta prime- rako giro sortu zuten bertsolariek eta antzerkilariet. Atzo bertso saioa izan zen, baina, gaiak antzerkia eginez jarri zizkieten bi bertsolariei Trikuharri taldeko antzerkilariet. Horrek gazteen atentzioa asko haunditu zuen eta saltsa haundi sortu zuten Sandiusterrin.

Bost ekitaldi

Bertso Lata datorren astean jarraituko du eta 5 ekitaldi gehiago izango dira oraindik. Urteroko moduan saio desberdinak antolatu dituzte Bertso Latarako, ahalik eta jenderik gehienarengana iristeko. As- telehenean bertso jarri emanaldia egingo dute Hernaniko Bertsolariek Milagrosan, mu- sikaz eta argazkiz lagunduta. Hilaren 26an, ostiralarekin, bertso afaria izango da Karobi Elkartean, Jokin Sorozabal eta Andoni Egañarekin. Hilaren 27an, larunbatarekin, urteroko bertso jaialdia egingo da San- diusterrin; eta hilaren 28an,



Sukia eta Esoain orioarrak antzerkia egiten eta Elortza eta Eizagirre harrituta.

igandearekin kale antzerkia egingo dute Hernaniko Bertsolariek Milagrosan, mu- sikaz eta argazkiz lagunduta. Hilaren 26an, ostiralarekin, bertso afaria izango da Karobi Elkartean, Jokin Sorozabal eta Andoni Egañarekin. Hilaren 27an, larunbatarekin, urteroko bertso jaialdia egingo da San- diusterrin; eta hilaren 28an,

Aurtengoa 8garren Bertso Lata da eta orain arteko guztia bezala Hernaniko Bertsolariek antolatu du eta Udalaren laguntza du. □

Bertso Latako ekitaldiak:

- Abenduak 22:** Bertso jarri emanaldia, 19:00etan Milagrosan.
- Abenduak 26:** Bertso afaria Egaña eta Sorozabalekin. Karobi elkartean.
- Abenduak 27:** Bertso jaialdia, 19:30etan, Sandiusterrin. Maialen Lujanbio, Anjel Mari Peñagarikano, Joxe Anjel Aranburu, Unai Iturriaga, Ibon Miner eta Amets Arzallus.
- Abenduak 28:** Kale Antzerkia, 19:00etan Hernanin barrena.
- Abenduak 31:** Urte zaharreko erronda, 17:30etan, Plazan .

Elkarte multikulturalak bilera deitu du biharko, aurrerako programa aztertzen hasteko

AMHER elkarte multikulturala martxan da, etorkinek izan litza- keten arazoak konpondu eta elkarbizitza hobetzeko helburuarekin. Biar bilera deitu dute, 20:00etan Biterin, aurrera begira egin beharreko lana zehazteko: etorkinen paperak, etxebizitzak, osasunintza, hezkuntza eta lanari buruz ariko dira. AMHER elkartea hernaniarren laguntza eskatu eta biharko bilerara ager- tzea dei egin du "bertan jaoak eta kanpotik etorriak". □

Joxan Pagola 'Beltzak' hitzaldia emango du gaur Andragoto ateneoan, 'Espetxea: amets gaiztoa'

ANDRAGOTO ateneoan espetxeari buruzko hitzaldiak ari dira ematen atzo hasita eta gaur Joxan Pagola *Beltza* preso ohiak emango du hitzaldia. Izenburua da *Espetxea: amets gaiztoa* eta arratsaldeko 19:30etan izango da. Biar bestalde Emakume Atxilotuak gaiari buruz ariko da Cesar Manzanos unibertsitateko irakasle eta Salaketako kidea eta etzi, larunbata, espetxeoko egoerari buruz hitz egingo du Alaitz de la Cruz soziologoak. □

Izan zaitez OLENTZERO: Opari hauetak ditugu zakuan

1- LA PERLA: "Kantabriko programa" 3 tratamendu: 55,10 □

2- LEKEITIO: 2 gau tratamentuarekin EMPERATRIZ ZITA hotela 143,11 □ - M/P

3- ARNEDILLO: Programa Relax (2 egun) 232,19 □ - M/P

4- "TALON HOTEL": IBERCHEQUE 47,00 euro

5- ESKIATZERA: CANDANCHU egun 1: 39,50 □ LUZ ARDIDEN egun 1: 47,00 □

6- TUNEZ: Urtarrilak 5 195,00 □ + (18 Tasak) eta kontsultarako beste aukera asko...

hernanib@teleline.es
Urbietako, 6 - 20120 HERNANI
943 33 00 49 / 943 33 01 74

ZINGI-ZANGA Jatetxea Eguneko menuak Asteburuan afariak Florida 54 943 33 03 97

Eguneroko menuez gain, Ostiral eta larunbatetan afariak ematen ditugu.

ZINGI - ZANGA Florida auzoa 54- 943 33 03 97

MENABI-k INSTALAZIO BERRIEN ATEAK ZABALDU DITU.

Menabi, Škoda Kontzesionario Ofizialak, erabat berriro ditu bere instalazioak eta inauguratzen ditu. 1500 m² baino gehiago Škoda-rentzat bakar-bakarrik: auto berri eta erabilien erakustokia, tailerra, errekanbioak eta bezeroentzako aparkalekuak. Ospatzeko, prezio bereziak gama osoan abenduaren 31 arte.

MENABI Txingurri pasealeku, 26 · Tel. 943 40 42 43 · Donostia

'Kannabisa larrugorrian' liburuxka aurkeztu dute bihar Gazte Txokoan

BIHAR, ostirala Kannabisa larrugorrian liburuxka aurkeztuko dute Gazte Txokoan, arratsaldeko 17:30etan. Liburukan Kannabisaren inguruko informazioa agertzen da eta Askagintzak egina da. □

3/4 plataformak kontzentrazioa gaur

HIRU laurden plataformak kontzentrazioa deitu du gaurko, kon- denaren hiru laurdenak beteak dituzten presoen eskubideak al- darrikatzeko. Gaur 19:00etan, Plaza Berrian. □

Carlos Luis Mejía Rodriguezzen marinba kontzertua gaur Kixkalen

CARLOS Luis Mejia Rodriguez nikaraguaren kontzertua dago gaur Kixkal tabernan, gauko 22:00etan. Musikari gaztea Carlos Mejia Godoy kantautore famatu- ren semea da eta instrumentu bat baino gehiago jotzen ditu: kitarra, akordeoia, marinbak, pianoa... gaur marinbak joko ditu Kixkalen, egiten ari den jiraren barruan. □

Mendiriz Mendi Riezura

MENDIRIZ Mendik irteera antolatu du helduentzat, hilaren 28rako. Riezura joango dira eta handik Iturgoiengo Trinitate mendia igoko dute (1237 metro) eta Iturgoienera jaitsi. Izen ematea Mendiriz Men- din egin behar da hilaren 25a baino lehen. Prezioa: baziodeek 8 euro eta ez direnek 11 euro. □

Txaranga bihar kalean

GABONEI hasiera emateko txaranga ibiliko da bihar kalez kale, Berriak komertziente eta ostalari elkartek antolatuta. Biar arratsaldeko 17:00etik 20:00etara. □

Oalentzero iritsi da Hernanira


■ Dagoeneko Hernaniko txoko, auzo, etxe eta komertziotan dago pipa erreaz.



Biteriko Oalentzeroa ezkerrean eta eskubian Tellerigaingoa. Dotoreena gauez egoten omen dira.

OLENTZERO iritsi da Hernanira eta horretaz konturatu da Hernanin zehar paseoa ematen duen edozein. Biterin, Tellerigainen, Karabelen, Portun eta beste hainbat lekutan dago Oalentzero eta kartak bidali nahi dizkieten umeek eta ez hain umeek ere badute aukera, Biterin dagoen Oalentzerok hartuko baititu.

Gabon gau inguruan herriko talde askok egingo dute Oalentzerorekin kale buelta. Doberak deialdia egin du Oalentzero hartu eta baserriz baserri kantuan joateko. Zita abenduaren 24an da arratsaldeko 15:00etan arkupetan. Egun berean, Ttarlak eta San Juan konpartsak ere kale buelta egingo dute arratsaldeko 18:00etan. Musika Bandak Gabon Gaueko erronda egingo du arratsaldeko 18:30etan. Ereñotzun abenduaren 24ean auzo buelta egingo dute eguerdian hasita eta bildutako dirua auzoko presoentzat izango da. Ikastolek ere urtero bezala Oalentzero aterako dute paseatzera abenduaren 24an. □



Portun dagoen Oalentzeroa.

Gabonetako sukalde ikastaroa

EMAKUMEAREN Zentru Sozialak antolatuta sukalde ikastaroa dago gaur, Biteri kultur etxearen, arratsaldeko 16:00etan. Ikastaroa irekia da nahi duenarentzat. □

Poesia gaur Antziolan

ANTZIOLAKO Helduen Hezkuntza Zentruan poesia emanaldia dago gaur, arratsaldeko 18:00etan. Jesus Rodriguez eta Jabi Sistiaga Irungo irakasleek emango dute. □



Judoka saila Hernanin. Joan den asteburuan umeen judo erakustaldia egin zen kirolegian eta judoka sailak hartu zuen parte, argazkian ikusi litekeen bezalaxe. Bestalde, eskola kirolik ez dago datozen asteetan Gabonak datozelako eta ondorenean ekingo diote berriz kirola egiteari. □

ADARRAGA
Konfitegia
Pasteldegia

Urbieta Etorbidea 7
☎ 943 55 09 10

Eguberri jai zoriontsuak opa dizkizuegu.



Zure erosketagatik Gabonetako Loteria
36.599 zenbakiko partizipazioa opari
Txirrita 10 - 943 55 23 95

ELIKAGAI KALITATEKO EUSKAL LABELA
PINEDA HARATEGIA
Kardaberaz 32 - Tel 943 551643 - HERNANI
GARANTIA ZIURTAGIRIA
IK KALITATEA

PROKOLOR ZENTRUA
PL Landarbar, s.l.
Pintatzeko ekipoak
Industri la dekoraziorako pinturak
Pintatutako paperak
Kardaberaz 45 - Telf.: 943 55 21 31 - Hernani

Hitz Bitan



✓ AEK EUSKALTEGIA

Pintxo jan latza egin zuten ostiralean euskaltegian.

Joan den ostiralean pintxo lehiaketa egin zuten AEKn eta arunen ere maila altuko lehiaketa izan da. Guztira 70 bat lagun elkartu ziren ikasle, irakasle eta inguruko jendearekin. Irabazlea Errausketarik ez taldearen fua pintxoa izan zen; bigarren Txinako taldea gelditu zen berenjena errebozatua gulak eta azenarioz lagundutako pintxoarekin; eta hirugarren Terrorea taldeak egin zuen Bihotz xamur hostopila pintxoarekin. Lehiaketa ondorenean festak jarraitu zuen euskaltegian eta jatena eta giroa primerakoak izan ziren.

✓ EUSKO ALKARTASUNA

Hiri Batzarra gaur. Eusko Alkartasunak Hiri Batzarra du gaur arratsaldeko 19:00etan eta dei egin diete afiliatu eta sinpatizanteei agertzeko.

✓ ASTIGARRAGA

Bertso-magia bihar. Bertso magia afaria antolatu dute Astigarragan biharko, Zipotza elkartean. Txartelak Zipotza eta Txikin. □



INAKI SARRIEGI LIZARRIBAR

2003ko abenduaren 15ean hil zen, 70 urte zituela.

Bere izeba: Secundina Agote (Felipe Sarriegiren alarguna), lehengusuak eta Sarriegi famili osoak.

Haren animaren alde otoitz bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitezela **GAUR, osteguna**, arratsaldeko **ZAZPIETAN, JUAN BATAIATZAILEA** parroki elizan egingo den hiletara. Aldez aurretek, mila esker

Hernanin, 2003ko abenduaren 18an



INAKI SARRIEGI LIZARRIBAR

*Zu joan zera baina,
zure irrifarra
beti izango da gurekin.*

Antonio eta Maritxu, Amaia eta Manolo, Joxan eta Mertxe, Xabi, Iñigo, Alaine eta Aitor.

Hernanin, 2003ko abenduaren 18an

IRAGARKI MERKEAK

Trikitixa daukat salgai, 3 ahotsetakoa. Nahi izan ezkero deitu: 943-550545

Furgoneta isotermoa daukagu salgai. Interesatuek deitu: 656 78 15 78

ZERBITZUAK

TELEFONOAK

- Taxiak: 943 550093
- Udaltzaingoa: 943 333288
- DYA: 943 464622
- Autobusak: 943 556662
- Anbulatorioa: 943 006666
- Jokalari anonimoak: 943 331103

FARMAZIAK

- Egunez: Correa Perkaiztegi 8
☎ 943 551933
- Gaez: De Miguel Lasarte. Nagusia 32
☎ 943 361556

GALARREGA JAI-ALAI

Ostegun, larunbat eta igandetan jaialdiak

GAUR 16:00ETATIK AURERA

ERREMONTZE JAIALDIA:

1. partidua: Iturralde - Gaztelu / Zalakain - Aizpurua II
2. partidua: Ezkurra - J.Etxeberria / Altuna II - Lizaso
3. partidua: Bitoria - Etxabe / Altuna I - Auzmendi
4. partidua: Sarasua - Urrutia / Agirresarobe - Urko

GALARRETA JAI-ALAI

**IGOR MINER HERNANIARRA ‘BASETXEA 45º’-EKO PARTAIDEA IZAN ZEN.
ETB-K AURKEZTEN DUEN LEHIAKETAN**

“Nere Basetxeko momenturik onena dueloa irabazi nuenekoa izan zen”

Iñaki Otxotorena - Oier

Garmendia

LANGILE IKASTOLA

Zerk edo nork bultzatu zintuen Basetxea 45º lehiaketara joatea?


Aurreko Basetxea izan zen, Isaban, borda batean, elurretan... Ideia gustatu zitzaidan eta e-mail bat bidali nuen baina ez zidaten erantzun. Oraingoan ere bidali nuen eta kastinera joateko deitu zidaten. Nere burua superbibentziaren aurrean ikusi nahi nuelako sartu nintzen. Banekien honen ondorioz prezio bat ordaindu behar nuela eta telebistan azalduko nintzela. Banekien ere honek beste ondorio batzuk edukiko zituela, zera esan nahi dut, jendeak ikusi eta kalean ezagutu eta galderak egingo zizkidatela.

Zein Basetxera joango zinen gusturago 1.era ala 2.era? Zergatik?

1.era. Lehenengo Basetxeko paisaje oso polita zen. Gu egon ginen lekuak 2 egun nahi koak ziren lekuaz aspertzeko. 1.Basetxeen berri, egun asko egon nientekeen bertako paisajeaz aspertu gabe.

Zein objetu pertsonal eraman zenuen Basetxera? Zergatik? Zer ezin zen eraman?

Nik euskerazko Tribiala eraman nuen, denbora errazago pasa-



Igor Miner, Langile ikastolan emandako hitzaldian.

tzen laguntzeko. Bertara debekatua zegoen erojua, telefono mugikorra, tabakoa etab. eramatea.

Zer moduz itzuli zinen Basetxetik? Zer egin zenuen bertatik etorri eta lehenengo gauza? Bueltatuko al zinake berriro?

Oso gaizki itzuli nintzen, 7 kilo galdu nituen eta 70 kg bakarrik pisatu eta 180 zm neurten nituen. Gainera jendeak errudun sentiarazten ninduen. Etorritakoan, uztailaren 26an, nere arrebaren etxera joan nintzen bizitako historia kontatzera eta larunbatean ESAITeko zeharkaldi batetara. Pixka batera

Isabara joan nintzen Eta ez, ez nintzateke berriro Basetxera bueltatuko.

Norekin moldatu zara ondoen? Eta gaizkien? Norbaitekin izan al zara Basetxea bukatu ondoren?

Hassan eta Eiderrekin ibili naiz ondoen. Gaizkien Joxerekinekin. Basetxea bukatu ondoren Hassan eta Eiderrekin egon nintzen Hernanin, kafe bat hartzen. Mariarekin telefonoz hitz egin dut eta Esterrekin ere ondo moldatzen naiz.

Bertako langileak, hau da, kamerak, redaktoreak... jatorrak al ziren? Zer moduz eramatzen zineten?

Oso jatorrak ziren denak. Oso ondo eramatzen ginen (grabatzten ari ez zirenean). Grabatzten ari ginenean ez ziguten kasorik egiten, ezagutuko ez baligute bezala.

DEFINITU LABUR:

- Ibai: protagonista
- Joxe: mandamasa-a
- Hassan: apala
- Iratxe: interesengatik aritzen zen
- Ester: oso bixia eta azkarra
- Eider: jatorra
- Maria: "ñoña"
- Nahikari: ahula
- Aitor: jatorra

ANTZERKI KRITIKA



‘Kutsidazu bidea, Ixabel’ obrako antzezleak.

‘Kutsidazu bidea, Ixabel’

Monika Mendiberri

LANGILE IKASTOLA

Euskal literaturaren historian ale gehien saldu duen lana egokitu eta taularatu du Gorringo antzerki taldeak. Joxan Sagastizabalek 90. hamarkadan sortu zuen istorio hau eta Nagore Aranburuk egokitzapenak egin ondoren, Anartz Zuazua zuendari dutelarik, Ixabel Agirresarobe, Iñaki Agirrezabal, Mikel Sarriegi, Ainara Tolosa, Egoitz Lasa eta Anjel Alkain aktoreak komedia hau egiten dabilta gure herriean. Hernanin ere izan genituen, noski, eta baita berta-ko Ereñotzu auzoan ere.

Antzerkiak, liburuak bezalaxe, Joan Martin 19 urteko euskaldun berri batek udara batean izan zituen pasaerak kontatzen ditu. Bera da protagonista eta Alkizako euskaltegian euskeria ikasten dagoen bitarte-an, Aranguren baserrira doa bere hizkera hobetzeko asmoz. Baino bertan entzuten duen euskeria berak ikasitakoarekiko erabat ezberdina da, hango bizitza ezinezkoa egiten zaio-larik. Hala ere, Martinek, baserrian ez du dena txarra topatzen, izan ere, bertako alaba gaztea, Ixabel, hasie-ratik ikusten du oso erakargarri.

Nere iritziz, talde gipuzkoar hau haurrei zuzendutako kale-ikuskizunetan murgildu bada ere, aurrera pausu nabarmena eman du ikuski-zun honekin. Gainera, Nagore Aranburuk egindako egokitzapenak lanaren mamia oso ondo errespetatu du amaiera entrenigarria eta guztiz arin kontatua emanez. Pertsonaie dagokienez, esan dezaket guztiz ondo sartu direla bakoitzaren pape-rean eta nabari da hurbileko egin zaiela hizkuntza mailan. Gidoia, berriz, nahiko garatua dago, bertan umorea nagusi delarik eta pertsonaien antzezpen ezin hobearerin batera ez du gure irrifarra aurpegitik kentzen antzerki osoan. Ez da ahaztu behar, dekoratura eta argiak eskas xamarra badira ere, izugarri lagunten dutela antzezlanaren girotze egokia lortzen. Beraz, hau guztia kontuan izanik, nere ustez, euskal-dun baserri bateko gertakizunak gozatzeko ezin hobea da *Kutsidazu bidea, Ixabel* obra. □

Gipuzkoako Kross lasterketa Hernanin

Sara Gonzalez-Garazi Urruzola
LANGILE IKASTOLA

Hernaniko kross taldeak, Foru Aldundia eta CD Hernaniren laguntzarekin, otsailaren 2. edo 3. astean lasterketa bat antolatuko du. Lasterketa igande goizez izango da, Landareko errugbi zelaian.

Korrika saio horretan parte hartuko dutenak Infantil eta Alebin mailako gaztetxoak dira. Lehiakatik kango ordea, Kadete mailakoek ere korritu dezakete eta inongo taldean ez dagoen jendeak ere bai. Zapatila egokiak era-biltzen dituzte eta adinaren ara-

bera oinetako horiek tako haundiak edo txikiak izaten dituzte.

Alebinek 1.200 metroko froga egingo dute eta Infantilek 2.000-koa. Krossean Gipuzkoa osotik etorritako 250 lagunek hartuko dute parte.

Hernaniko talde honek astean bitan entrenatzen du Sagastialde-berrin dagoen pistan. Entrenamenduen arduradunak, beste batzuekin batera, hauak dira: Miguel Anjel Garin eta Ketus Garin.

Lasterketan parte hartzeko
Lasterketa egunean dena prest egon dadin eta antolaketa ego-



Gaztetxoak Hernaniko Atletismo pistan.

kiarekin, Hernaniko Kirolegiak bertako langileen lagunza eskainiko du. Informazio gehia-

go nahi izan ezkerro, kirolegian galdu edo taldeko arduradunekin harremanetan jarri. □

TXOKOA

LANGILE IKASTOLA

2003ko abenduaren 18a, osteguna

Ikasleen Txokoa kaleratzen da Hernaniko ikastola eta ikastetxeek Hernaniko Udalarekin eta Hernaniko Kronikarekin egindako elkarlanari esker. Datozen hilabeteen jarraipena izango du.

4. zenbakia



Eskas xamarra gelditu da Pana parkean dagoen U-a, eta beste pista mota batzuk erantsi nahi dizkiote.

Skatean ibiltzeko toki apropos baten bila

Jurdana Ramirez-Amair Larrarte
LANGILE IKASTOLA

GAUR egungo gazteak skatean ibiltzeko leku apropos baten bila dabilta.

Hernaniko gazte talde batek *skate park* bat egitea eskatu zion Udaletxeari. Hori hala izateko, 1300 firma lortu behar zituztela esan zieten. Hernanin, toki bat dago horretarako prestatua, Zinkoeneatik gertu, Parke Panan,

hain zuzen dago kokatua Hernaniko U-a eta ez dago egoera onean.

Gazte talde honek arratsalde bat pasa zuen firmak eskatzen, baina, ez ziren nahikoa izan, 800 bakarrik lortu zituztelako. Horiek batera, bi heldu laguntzen ari dira eta bideo batean filmatu dute beraiek egiten dakitena. Eta bideo hori, Udaletxeari eman diote. Agian, esibizioak eta konpetizioak ere egingo dituzte jendeak

ikusteko, eta firmatu ez dutenak firmatzera animatzeko.

Arazo bat izaten da, gazteak Donostiraino joan beharra izaten dutela Hernanin ez dutelako *skate park*-ik jartzen. Horregatik, Hernaniko biztanleei eskatzen zaie, gazte talde hori firma bila kalean ikusi ezkerro firmatzea. Horrela, Plaza Berrin gurasoak egonean, lasai egon ahal izango dute, baita Biteri eta beste hainbat tokitan ere. □

Orriaren egileak:



Monika Mendiberry, Amair Larrarte, Jurdana Ramirez, Garazi Urruzola, Sara Gonzalez, Iñaki Otxotorena, Mikel Von Wichmann eta Oier Garmendia.

Bitxikeriak

Mikel Von Wichmann - LANGILE IKASTOLA



Agustinien konbentua.

Zinkoeneako obrengaitik Hernaniko etxe zaharrenetariko bat bota dute eta orain Agustinien konbentua hobeto ikus daiteke. Hau ere Hernaniko eraikinik zarrenetariko bat da.


Agustina eta inguruetan proiektu urbanistiko berria dijoa, eta dagoe-neko lanak aurreratzen ari dira. Azaroaren 26an bota zuten Agustina konbentu aurreko etxea, Hernaniko zaharrenetarikoa. □



Paradorea bota eta gero.

Paradorea bota dute, Hernaniko hotela eta Langileko eskola izan zena

San Antonio paradorea 1944an inauguratu zuten eta 1974an itxi. Gero Hernaniko ikastetxeek erabilera eman zioten, eta Gaztetxe bezela funtzionatu zuen urte askoan. Gero erre egin zen eta azken urteotan nahikoa egoera txarrean zegoen. □



Liburutegi berriaren itxura.

Antziola auzoan liburutegia eta ordenagailu gela ireki dituzte, arratsaldeko 18:30etatik aurrera nahi duenarentzat

Antziola auzoan liburutegia eta ordenagailu gela ireki dituzte, eta arratsaldeko 18:30etatik aurrera dago aukera hara joateko. Liburutegia batez ere auzotarrentzat jarritakoa da baina edozein joan liteke. □